



IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIAREN ETA LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2023KO MARTXOAREN 10EKO ZIRKULARRA, HEZKUNTZA SAILEKO IRAKASKUNTZA SEKTORE PUBLIKOAREN ETA LAN LEGEPEKO KOLEKTIBOEN HAUTESKUNDE SINDIKALETAN BOTO ESKUBIDEA GAUZATZEKO ORDUAK IZATEARI BURUZKOA.

2023ko urtarrilaren 23ko Akordioaren egutegiarekin arabera, eta gero hauteskunde-mahai guztiek berretsita, hauteskunde sindikalen **bozketa-eguna martxoaren 30ean** izango da, **10:00etatik 18:00etara**, hauteskunde-mahaiaren egoitza gisa izendatutako ikastetxeetan: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko **Irakaskuntza Pertsonalaren Batzarretarako**; Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileen **Enpresa Batzordeetarako**; Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Zerbitzuetako Lan-legepeko Langileentzako eta Bizkaiko Erlijioko Lan-legepeko Langileentzako. Era berean, egun horretan bertan bozkatuko da Arabako eta Gipuzkoako Erlijioko Lan-legepeko **Langileen Delegatuak** hautatzeko hauteskundeetan.

Hauteskunde-erroldak integratzen dituzten pertsona guztiek botoa libreki eman ahal izango dutela bermatzeko eta partaidetza ahalik eta handiena izatea sustatzeko asmoz, behar den baimena hartuko da, argibide hauen arabera:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko guztietan, 2. puntuan adierazitakoak izan ezik, 2023ko martxoaren 30eko irakasjarduna 14:00etan bukatuko du. Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzak, beharrezkoa dela uste badu, goizeko lanaldiaren klase-orduak beste era batean antolatu ahal izango ditu eta goizean kontzentratu ahal izango dira egun horretarako aurreikusitako klase guztiak.
 2. Eskola-jarduera gehienak arratsaldean egiten diren ikastetxeetan, martxoaren 30eko goizean ez da klaserik emango eta klaseak 16:00etatik aurrera emango dira.
 3. Egun horretarako eskola-garraioen zerbitzuan behar diren egokitzapenak egingo dira.
 4. Sukaldaritzako pertsonalak 14:00etan bukatuko du lanaldia; izan ere, boto-eskubidea bermatzeko, Hezkuntza Saileko sukaldariak dituzten ikastetxe guztien menua plater nagusi bat izango da (lehenengoa edo bigarrena) eta postrea. Ahal den heinean, erabili eta botatzeko tresnak erabiliko dira.
- Garbiketako pertsonalak 4 ordu, gehienez ere, izango ditu botoa eman ahal izateko.
5. Hezkuntza Bereziko lan-legepeko pertsonalaren jardunaldia 14:00etan bukatuko da, horregatik, behar diren aurreikuspenak egin beharko dira garraio- eta jantoki-zerbitzuak egokitzeko.
 6. Ikastetxetako zuzendaritzek behar diren antolaketa-neurriak hartuko dituzte, zirkular hau aplikatzeko eta ikasleen gurasoei behar bezala helarazteko.
 7. Hauteskunde-mahaiak osatzen dituzten kideek (mahaiburua, bokala, idazkaria) ordaindutako baimena izango dute botazio- eta botazioaren hurrengo egunerako eta bi egunetan haien ordezkapenak egingo dira. Halaber, Ikuskatzaileek, baimen bera izango dute.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 10a

IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Eugenio Jiménez Ibáñez



Blanca Guerrero Ocejo

HEZKUNTZA SAILA